

euskal herria 2020 (V) > euskara eta kultura

Gogoaren beharra, gauza guztien gaineratik

ENKO BIDEGAIN
Baiona

Herriarrek gogorik ez badute, euskararen garatzeko finkatzen diren helburuak ez dira bete. Lau erronka finkatu ditu Euskararen Erakunde Publikoak (EEP). Baina lau erronka horietatik bat beste hiruren gaineratik ezarri du, «nahikaria bultzatzea, gizararen atxikimendua azkartzea». «Zeharkako erronka» hori beharrezko ikusten du hizkuntzaren transmisioa, presentzia, erabilera eta kalitatea bermatzeko.

Adin guztietako hiztunen kopurua emendatzeko helburua finkatu du EEPk. Bigarrenik, euskararen presentzia bermatu nahi du bizi sozialean eta pribatuan. Euskaldunek euskara gehiago balia dezaten «dinamika berri bat» sortu nahi du, «urratsez urrats euskarak komunikazio funtzioa berriz eskura dezan». Horri loturik euskararen kalitatea zaintzea eta hobetzea aipatzen du EEPren txostenak.

Horiek dira ardatz nagusiak. Baina xehetasunetan sartzea falta du EEPk. Aurten zehaztuko du 2007 eta 2010 bitartean balio izanen duen hizkuntza politika. Xede orokorrak zehaztuz, hizkuntza politika hori «egitasmoz eta egutegiz gorpuzten» ari dira orain. Horrekin batera, denboraldi horretan lehentasuna ukanen duten diru partidak finkatuko ditu EEPk.

Oraingoz lana lan taldeetan banatu dute, eta ez da lana eskas. Xede nagusi bakoitzarentzat diagnostia, erronkak, norabideak, ekintzak eta ebaluazio sistema landuko dituzte. Gainera, erronka horiek arloz arlo landuko dituzte. Adibidez, transmisioaren atalean, familiarakoa, haurtzaindegietakoa, irakaskuntzaren bidezkoa eta hel-

Euskararen Erakunde Publikoak azaroan aurkeztuko du bere proiektua, baina euskararen transmisioa, presentzia eta kalitatea finkatu ditu erronka gisa.

duen irakaskuntza atalekoa landuko dituzte.

Uda honetan lan taldeak hasi dira beren alorren inguruan lanean. Irakaskuntzaren, euskarak bizi sozialean duen presentziaren, edizioaren, helduen irakaskuntzaren, hedabideen, toponimiaren, hizkuntzaren alderdi kualitatiboan, sentsibilizazioaren eta beste hainbat atalen inguruan osatu dira lan talde horiek. Hamaika lan talde orotara. Lan talde horietan sektore

horietako eragileak biltzen dira eta ekarpen libreak egiten dituzte.

EEPko administrazio kontseiluak lan talde horietan osatu dituzten proiektuen inguruan erabakia hartuko ditu. Horren ondotik, EEPko aholkularitza batzordeari aurkeztuko dio proiektu proposamena. Bilera horretatik landa, administrazio kontseiluak behin betiko proiektua onartuko du. Ontsalaz azaroan izanen da hori. Oinarri horrekin, 2007tik landa hizkuntza politika bat abiatuko du EEPk.

Jakes Bortairu Euskal Konfederazioko kidearen iritziz, oraino goiz da lan horren inguruko irakurketa baten egiteko. «Joan den urte bukaeran aurkeztu genuen txostenaren puntu nagusiak hartu ditu EEPk». Gero ikusiko dute ea EEPko administrazio kontseiluak lan taldeen txostenak diren bezala

hartuko dituen ala ez. Dena den, proposamenak egiterakoan, sailak berak dira beren sailletan egin behar denaz jakitun. Logikotzat jotzen da helduen irakaskuntzari buruzko proposamenak sail horretan ari direnek aurkeztea. Gauza bera hedabideen atalari dagokionez.

Hortik landa, «arazoa betikoa» da. Hots, «diru gutxi dagoela eta ez dagoela euskararen babesteko legerik». Bortairuren ustez, orain arte lortutakoa «sokotiraren» ondorioa izan da. *Euskal Herria 2010* txostenetik landa, euskalgintzak borrokatu behar izan zuen hainbat puntu onarrazteko. «Baina euskara ez dute sartu Administrazioan, ez eta irrati eta telebista publikoan ere». Estatuaren eta botere publikoen esku dagoena ez da egi- na izan. Eta Estatuaren ordezkari- ek agintzen dute oraino ere.



Bide seinale elebidunak lortu baziren ere, oraino anitz falta da Administrazioan euskara sartzeko. CAZKA ROZ

Nortasunaren aukerak eta mugak

Euskal kultura zabaltu eta euskarazko sorkuntza sostengatzeko neurriak hartu behar direla dio EKEK

E. BIDEGAIN
Baiona

Nortasunak salbatuko du Ipar Euskal Herria. Hori erratearekin bat datoz denak, *Euskal Herria 2020* txostenean. Euskal Kultur

Erakundeak (EKE) aurkeztu txostenaren arabera, euskal nortasuna urrunago joateko aukera bat da, «arrasta» bat den bezala. «Nortasunaren alde hori garapen iturri handia da, baina aldi berean, mesfidantza, ez ulertzea eta baztertea ere eragiten ditu».

Euskarazko sorkuntza, «zabala», «aberatsa» eta «berezia» bada ere, «ahuleziak» dauka, EKEren iduriko. Sorkuntza hein handienean amateurren esku izatea litzateke ahulezia horietariko bat. Ama-

teurren eta profesionalen arteko zubiak azkartzea proposatzen du EKEK.

Beste ahulezia bat: tradizioak «pisu handiegia» du «sorkuntza garaikidearen kaltean». Euskararen gainbeherak sorkuntza horien zabaltzea mugatzen du, txosten horren arabera. Horrez gain, euskal kultura ez da euskaldun anitzengana heltzen. Euskarazko sorkuntza sostengatzeko premia berretsi du EKEk, publiko berriengana joanez, itzulpen zer-

bitzu gehiago eskainiz eta programatzailen baldintzak kontuan hartuz. Programatzaila profesionalak eskatzen dituzten baldintza teknikoak ez dira euskarazko sorkuntza gehienetan amateurren heinekoak, eta, beraz, sorkuntza horiek ez dute biderik zirkuitu handietan sartzeko. Sorkuntza egin ahal izateko, profesionali eta amateurrei baldintza tekniko ego- kiak dituzten gelak uzteko aukera lantzea aipatu du EKEK.

Gaur egun euskal kultura bana-

tzen duten eremu berriak agertu direla ikusten du EKEK. Turismoa edota lekuko janari ekoizpenak dira horiek, nagusiki. Euskal kulturaz saltzen duten irudiak dudu eta eztabaida anitz sortzen du, baina, EKEren ustez, euskal kultura «banatzeko bide berri horiek ez dira nahiko erabiliak». Horiek gehiago erabiltzea proposatzeaz gain, EKEren ustez, ikusgarri amateurren eta erdi profesionalen banaketa lagundu behar da. Banaketarako eremu berriak aurkitzea ere aipatzen du EKEK; besteak beste, eskolak, irrati, telebista eta Internet.

Bihar: Azpiegiturak eta garraioa